

KALITATEZKO URA, BIZI KALITATEA



AMVISAK **5.000 analitika** inguru egiten ditu urtero, 24.000 parametro zehaztuz 2.000 ur laginetan, Gasteizen eta inguruko udalerrietan, zein urtegiatan (Ullibarri, Gorbea eta Albina), edateko uren araztegiatan eta ur-gordailuen irteeran banatutako berrogeita hamar bat iturri eta laginketa puntuetan. Anali hauek burutzeko AMVISAK ENAC-ek laborategien entsegu eta egiaztapenerako konpetziak ezartzen dituen **ISO 17025 arauaren arabera akreditatutako laborategia du.**

Egindako lanak **hiritarrei zerbitzatutako edateko uren egokitasuna egunero bermatzeko** balio du, legediak ezarritako osasun irizpideekin ados (RD 140/2003) eta EAEan 178/2002 Dekretuak kontsumorako uren kalitatearen kontrol sistemak, zainketa eta informazioa arautzen dituenaren arabera.

Analitiken emaitzak aldizka argitaratzen dira, eta interesdunen esku daude Osakidetza-aren webgunean. Informazioa eskuratzeko, halaber, AMVISA-ren webgunera jo daiteke (Uraren kalitatearen atalean eta jarduera memorian).

Horrez gainera, **usaimen eta dastamen analisiak ere astero egiten dira**, boluntarioki parte hartzen duten hiritarrek osatutako dastaze taulen bitartez. Gehiago jakin nahi ezker edota parte hartu izanez gero, idatziguzu info@amvisa-futura.org kontuaren bidez.

AMVISAK **hondakin uren poluzioa neurtzeko ere kontrol zehatz eta zorrotzak** egiten ditu Krispiñako Ur Araztegiiko sarreran eta irteeran, eta Zadorra ibaira egidako ur-isurketan.

AMVISA: gogobetetasuna eta gardentasuna

Dagoeneko ezagutu dira **Hiri Zerbitzuekiko Gogobetetzearen II. Barometroaren** emaitzak, 2018ko ekainean eta uztailean estatuko 30 hiririk handienetan egindako 5.000 inkesta baino gehiagotik abiatuta.

Vitoria-Gasteizi dagokionez, bere zerbitzu publikoekiko gogobetetze mailarik handiena duten hiru hirietako bat izanik, Barometroak jasotzen duenez, "ur hornidura da onentzat jotzen dena, eta lehen postuan mantentzen da, gogobetetako herritarren **%79rekin**. Puntuaziorik onena uren kalitateak dauka, %83rekin; ondoren dator gestio operatiboa (matxurak, presioa...), %76rekin, eta, azkenik, estolderi zerbitzua, %71ko onarpenarekin". Emaitza orokorretan, ur hornidura da Espainiako herritarrek ondoen baloratzen duten zerbitzua, gogobetetze maila %69koa izanik.

Horrez gain, Ur Hornidurako eta Saneamenduko Espainiako Elkarteak (AEAS) **txosten** bat landu du **tarifen gardentasunari buruz**, zeinak uren prezioen gaineko informazioa eskuratzeko aukerari buruzko hainbat alderdi ebaluatzen dituen (informazio eguneratua, osatua eta Interneten erraz eskuratzekoa), baita informazio horren zailtasunari edo ulergarritasunari buruzkoak ere. Erkidego autonomoetan, Euskal Autonomia Erkidegoak dauka notarik altuena, eta **AMVISAK estatuko amaierako notarik altuena lortu du, hamar punturekin bai eskuragarritasunean bai ulergarritasunean.**

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org

Ura eta osasuna

Urak funtsezkoak diren prozesuak betetzen ditu gure gorputzena; toxinak eta hondakinak ezabatzen ditu, zelulen arteko bitamina eta elikagaien konponketan laguntzen du, gorputzeko tenperatura doitzen du, digestioa erraztu eta idorreria txikiagotzen ditu mugimendu peristaltikoak laguntzean, buruko mina saihesten du... **Edaten dugun uren kalitatea eta kantitateak badu, beraz, gure osasunean eragin aipagarria.**



Ura eta kirola

Jarduera fisikoa batean gaudenean muskuluek erabilitako energiaren hiru laurden eraldatzen dira. Bero horri aurre egiteko urak gure gorputzaren tenperatura doitzen lagundukotarainoko urg du, izerdiaren bitartez. Litro batetatik hiur litrotarainoko ur galtzea suposatu dezake. Jarduera fisikoan zaudenean **etazu itxoin egarri izan arte ura edateko**, deshidratazioak errendimendua eta kontzentrazioa murriztu, eta karranpak eta lesioak jasateko arriskua haunditzen du.

Ura eta haurtzaroa

Biberoi eta haurren elikagaiak prestatzerakoan Vitoria-Gasteizko ura erabiliz **jaioberriaren elikadura beharrak betetzen dira**, beharrezkoak dituzten elikagaiak era orekatuan ematen baidizkie.

Iturriko ura; ekonomia eta ingurumen kontua

Iturriko ura botilaratutako ura baino askoz merkeagoa da batez beste, kontrol zehatzak eta osasun berme guztiak dituela, zure etxeko iturrian, eta hontzi hondakinak sortu gabe.